



Suaikai

- PRODUCTIONS -



LUCES, MÚSICA  
**¡ACCIÓN!**



# FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza: **Suakai**

Zuzendaritza Artistikoa: **Claudia Osés**

Musika Zuzendaritza: **Iván Carmona**

Soinu-diseinua: **Mikel F. Krutzaga**

Argiztapen-diseinua: **Carlos Solano**

Jantziak: **Ilazki Martirena**

Argazkia: **Ander Carmona**

Biolina: **Maddi Arana**

Biolina eta mandolina: **Claudia Osés**

Biolontxelo: **Juan Ignacio Emme**

Biolontxelo, flautak, duduk-a, gitarrak eta teklatura:

**Iván Carmona**

Perkusio sinfonikoa: **Igor Arostegui**

Bateria eta tronboia: **Igor Telletxea**

Soinu Ingeniaria: **Mikel F. Krutzaga**

Argi Ingeniaria: **Carlos Solano**

# **LUCES, MÚSICA, ¡ACCIÓN!**

## **Zinemaren magia eta bere musika**

Zinemaren emozioa antzoki eta auditorioetara eraman dute, oraingoan, zuzeneko soinu-banda originalarekin. Ikuskizunak irauten duen 75 minutuetan, **etenik gabeko bidaia** bat bizi ahal izango da zinemaren historiako soinu banda garrantzitsu eta erakargarrienetan zehar. Horiek guztiek **milimetrikoki sinkronizatutako** filmetako irudiekin lagunduta, pantaila handian gertatzen den bezala.

Kalitate handiko ekoizpen paregabea, **mota guztietako espazioetara** egokitu ahal izateko bereziki sortua, ekipamendu gehiago edo gutxiago duten espazioetara, barnealdean edo aire zabalean egiteko aukera, etab. Ikusleen bi pasio handienak batuz, zinema eta soinu bandak, **formatu txiki eta originalean jorratzen dituen ikuskizuna da.**



# 3 IDEAS DEL ESPECTÁCULO



## 5-99 Urte

Jende guztiarentzat egokia eta gomendagarria, "Luces, Musica, Acción!" ikuskizuna **oso adin ezberdinetako ikusleei** zuzentzeko asmoarekin sortzen da bereziki. Beraz, gazteek edo hurrek, gurasoek bezainbeste gozatu ahal izatea bilatzen da..



## Soinu Inguratzailea

"Luces, Musica, Acción!" ikusikizunak **Soinu inguratzailea edo Surround 4.0** teknika erabiltzen du, eta aretoaren aurrealdean eta atzealdean jartzen ditu PA bozgorailuak. Zuzeneko sistema koadrafoniko horrekin lortzen da zinema aretoen soinu hain bereizgarria.



## Erronka Musikala

Musika eta irudiaren arteko sinkronizazio milimetrikoak eta soinu banden moldaketek, jatorriz orkestra filarmonikoetako instrumentu ugarietarako konposatuak, "Luces, Musica, Acción!" **benetako musika erronka** bihurtzen dute. Hau burutu ahal izateko, aurrez egindako ekoizpen handiarekin eta **lehen mailako musikari profesionalekin** lan egiten da.



# LAN TALDE BEREZIA

Musikari onenekin eta teknikari ezin hobeekin lan egiten dugu, ekoizpena perfektua izan dadin.

**EZAGUTU ITZAZU!**



# TALDE ARTISTIKOA

## Claudia Osés

Euskal Herriko Goi mailako Musika Ikasteka zentroan, "Musikene"n, lizentziaduna biolin espezialitatean Lorenz Nasturicaren eskutik, eta Bartzelonako Liceu kontserbatorioan jarraitu zuen bere prestakuntza, Olga Aleshinsky biolinjole ospetsuarekin. Bakarlari gisa aritu da, eta hainbat estilotako artista, orkestra eta taldeekin lan egin du. Flamenkoa, musika klasikoa, rocka, arabiar musika eta folka bezalako generoetan egindako ibilbide luzea Suakairen ekoizpen ezberdinetan islatzen da.

Proiektuaren produkzioan egindako lanaz eta ikuskizunaren **biolinjole** gisa egindako lanaz haratago, Claudia Osés produkzioaren **zuzendari artistikoa** da, eta Ivan Carmonarekin batera **Musika Zuzendaritza** partekatzen du. Hala, besteak beste soinu-diseinuaren, eszenografiaren, argiaren, zuzenekoetarako samplak grabatzearen arduraduna da.



## Iván Carmona

Aldo Mata txelista ospetsuaren eskutik hasi zituen ikasketak, biolontxelo karrera osatuz. Mundu klasikoan duen prestakuntza zabalak eta beste hainbat estilotan duen esperientziak Suakairen sormen eta musika arloaren zati garrantzitsu bihurtzen dute. Konpositore eta moldatzaile gisa, "Erroak" edo "On the Rocks" bezalako ikuskizunei soinu-banda jartzeaz arduratzen da. **2020an Nafarroako Arte Talentua Sustatzeko Saria eman diote.**

Proiektuaren ekoizpenean egindako lanaz gain, Ivan Carmona ikuskizunaren talde artistikoko kide da, **biolontxelo jotzaile gisa**, eta Claudia Osésekin batera **Musika Zuzendaritzako** arduraduna da, soinu banda bakoitzaren musika moldaketetan bereziki lan eginez.



## Alejandro Martínez

Habanan jaioa, bere karrera Gladys Lo eta Juan Verdera maisuen babespean hasi zuen, ISA Arteen Unibertsitatean urrezko titulua lortuz. Kubako orkestra sinfoniko guztiekin jo du bakarlari gisa. Kontzertista eta ganbera-musikari gisa egindako lanak estilo ezberdinetan lan egitera eramán du, interpretazio historikotik hasi eta jazz edo musika elektronikora arte. Europan, Latinoamerikan eta Estatu Batuetan lan egin du hainbat profiletako artista eta taldeekin, horien artean Ara Malikianekin egindako bira nabarmendu daiteke.

Gaur egun Suakairekin kolaboratzen du bere formatuetan, bere alderdi interpretatiboa **konpositore eta ekoizle** bezala duen esperientziarekin konbinatuz. Alejandro Martínez **biolontxelista** ordezko ofiziala da.

## Maddi Arana

Prestakuntza klasiko handiko biolin-jotzailea, goi mailako ikasketak Berlingo Universität Der Künsten eta Musikenen egin zituen, ondoren ESMUCen prestakuntza handitzeko. Bakarlari gisa aritu da nazioko eta nazioarteko hainbat auditoriotan, eta egungo musika garaikideko hainbat orkestra eta talderekin lan egiten du. Jarduera klasiko hori rock eta pop estiloekin uztartzen du, Suakairekin bere hainbat proposamenetan parte hartuz.

Gaur egun, **Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin** kolaboratzen du ofizialki, eta interpretazio lana eta grabaketa estudioko lana uztartzen ditu. Maddi Arana, Claudia Osesekin batera, **biolinista ofiziala da**.





## Igor Telletxea

Beran jaioa, gaztetatik bateriarekin uztartzen ditu ikasketa klasikoak, hainbat proiektutan lan eginez, zuzenean zein estudioan. 80 bat diskoren grabazioan parte hartu du, baita telebistarako eta zinemarako musikan ere. Besteak beste, Eñaut Elorrieta, Mikel Erentxun, Petti, Alex Ubago, Joseba Irazoki, Xabi Aburruzaga, Xabi San Sebastian, Iñaki Dieguez Trio, Mikel Errazkin & HF, Bide ertzean, Joxan Goikoetxea, Rogelio Botanz, Urko, Gozategi eta Anje Duhalde artistekin lan egin du.

Gaur egun, **estudioko eta zuzeneko musikari** lana ekoizle, pedagogo eta zuzendari gisa egiten duen lanarekin uztartzen du. Igor Telletxea ikuskizuneko batera jotzailea da, **perkusionista eta tronbonista** izateaz gain.



## Igor Arostegi

Tolosan jaioa, perkusio espezialitatean graduatu zen "Musikene" Euskal Herriko Musika Kontserbatorioan. 2009an, Euskadiko Musikari Gazteen lehiaketan lehen saria lortu zuen ganbara modalitatean, eta bigarren saria perkusio modalitatean. Bere aldakortasuna eta iraunkortasuna direla eta, Espainiako eta nazioarteko hainbat orkestrarekin lan egin du, hala nola Gustav Mahler Jungendorchester, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Galiziako Orkestra Sinfonikoa eta RTVEko Orkestra.

Gaur egun, **Euskadiko Orkestra Sinfonikoko Perkusionista Solista** da, eta, 2017tik, Suakarekin lan egiten du Raíces ikuskizunean, baita ikus-entzunezko ekoizpenetan eta grabazioetan ere. Igor Arostegi ikuskizunaren **perkusio sinfoniko eta tradizionalaren** arduraduna da.



## Juan Ignacio Emme

Buenos Airesko Beethoven kontserbatorioan graduatua, Tel Aviveko Unibertsitatean Hillel Zori maisuarekin eta Kaliforniako Los Angeles hiriko "The Colburn School" kontserbatorioan ikasten jarraitzen du. Biolontxelo bakarlari bezala parte hartzen du hainbat urtez "Schleswig-Holstein" jaialdiko orkestran, baita "Amerikako Gazte Orkestra" YOA/OJAn ere. Bakarlari gisa, Argentinako hirietan eman ditu kontzertuak, El Salvadorren eta Washington D.C.n, 2008an, "Israel Cello Society" ren biolontxeloaren Nazioarteko Kongresuan.

Gaur egun **Euskadiko Orkestra Sinfonikoko Violoncello Solista** da. Juan Ignacio Emme, Ivan Carmonarekin batera, **ikuskizuneko biolontxelista ofiziala da.**

## Liesbeth Baelus

Lau urterekin hasi zen biolina jotzen, eta, ondoren, Bruselako Errege Musika Kontserbatorioan ikasi zuen, Y. Horigome, B.Kushnir eta Z.Bron bezalako irakasleekin. Bere espezialitatea ganbera-musika da, 2015etik Taurus laukotearekin eta St. George String Quintet-ekin nazioartean kontzertuak ematen ditu. "Best of the year 2018" saria irabazi du, musika klasikoaren kategorian. Bere boskotearen disko berria, "Bohemia Express" (2020), nabarmendu egiten da nazioarteko prentsan, bai musika aldetik bai teknikoki trebea delako.

Gaur egun, **ganbera-musika** gisa duen jarduera Suakairen hainbat proiekturekin uztartzen du. Liesbeth Baelus, Yorrick Tromanekin batera, **OSNko kontzertinoa**, ikuskizunaren ordeko **biolinjoleak** dira.

## Daniel Domínguez

Gaztetan hasi zen perkusio ikasketekin, eta hasieratik espezializatu zen baterian. Pablo Sarasate Goi Mailako Musika kontserbatorioan ikasten jarraitzen du, Dani Lizarragaren eskutik. Urteen poderioz, jazz eta musika modernoan espezializatu zen. Baterijole izatea mundu latino eta afrikarrarekiko grina uztartzen du, eta estilo horietan ere trebatzen da. 2017an Suakain hasi zen lanean, eta enpresaren promesa gaztean bihurtu zen, 2018ko neguan grabatu baitzuen bere lehen diskoa, SuaKai Eléktrico.

Daniel Dominguez da bateria eta diziplina anitzeko perkusioak musikari bakar bati egokitzearen arduraduna, horrela, ikuskizunaren baterijole eta perkusionista ordeko ofiziala bihurtuz.

# TALDE TEKNIKOA

## Mikel Krutzaga

1997an hasi zen grabazio ingeniari lanetan, Ivan Ferreiro, Benito Lertxundi, Kepa Junkera, Luar na lubre, Alasdair Fraser & Natalie Hass edo Itoiz bezalako musikariek lan eginez. 2004an Grammy saria jaso zuen grabazio eta nahasketa ingeniari gisa egindako lanagatik, Kepa Junkeraren "k" diskoarekin. Ikus-entzunezko hizkuntzarekiko duen interesa dela eta, zinemako musikan espezializatu da. Bere ibilbide luzean ehun film baino gehiagotan egin du lan, besteak beste, Juan Jose Campanela (Oscar sariaren irabazlea), Jose Maria Goenaga, Jon Garaño, Montxo Armendariz, Imanol Uribe, Iciar Bollain, Salvador García Ruiz, Pablo Malo (zuzendari berri onenaren Goya sariaren irabazlea), Ramon Salazar, Mireia Gabilondo eta Fernando Bernues zuzendarien eskutik. Azkenik, bideo-jokoan arloan eta soinu-diseinuaren teknika berrien arloan egindako lana nabarmendu behar da. Horregatik guztiagatik, gaur egun erreferentziatzen da musika ekoizpenean eta grabazioan.

Gaur egun, estudioko bere bizitza zuzeneko ingeniari lanarekin uztartzen du. Mikel F. Krutzaga arduratzen da 360gradutan soinu-diseinua egiteaz eta ikuskizun bakoitza soinu ingurutzailerekin soinuatzatzeaz.

## Carlos Solano

The Lumen Box taldearen sortzaile eta zuzendaria da, eta ikuskizunetarako eta ekitaldietarako argiztapen, bideo diseinuan eta errealizazioan espezializatzen da. Gainera, zuzendaritza teknikoko eta ikuskizunetarako osagarrien eraketa zerbitzuak eskaintzen ditu, hala nola led-ak, motorrak, sentsoreak edo haririk gabeko sistemak. Carlos Solanok 2018tik argi-ingeniari gisa lan egiten du Suakaien, eta Raíces, Suakai EléKtrico eta On Ther Rocks ikuskizunetan argien diseinuen arduraduna da.

Gaur egun, bere jarduera profesionala Suakaien egindakoarekin uztartzen du, 360 gradutan egindako diseinuak eta moldagarritasuna nabarmenduz. Carlos Solano ikuskizunaren diseinatzaile eta argi-ingeniaria da.



# RIDER TEKNIKOA

## SOINUA

- Soinu-ekipoak funtzionamendu eta egoera ezin hobean egon beharko du, behar bezala doitu, eta esparru osoan zehar estaldura osoa eta koherentea izateko gai izan beharko du, front filla barne, beharrezkoa izanez gero.
- Gutxienez 24 sarrera kanal eta 16 bidalketa osagarriren nahasketa-mahaia (SUAKAIk aurkeztua).
- Mikrofonia zehaztua kanalen zerrendan (SUAKAIk emana).
- Instrumentuetarako haririk gabeko sistemak (SUAKAIk aurkeztua).
- In ears estereo sistema, dagozkion antenekin, boosterrarekin eta aurikularrekin (SUAKAIk emandakoa).
- 360 gradutarako soinu-ekipoa (SUAKAIk emandakoa)
- 1x 32/8ko mangera analogikoa, kontrola eta agertokia konektatzeko behar adina metrorekin.
- Beharrezkoak dira kableak eta mikro-oinak. Osorik eta egoera onean egon beharko dute, guztiak beltzak.
- 1x interkom puntua agertokian, eta 1x interkom puntu kontrolean, elkarren arteko komunikazioarekin.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

- Beharrezkoa da ziklorama bat eta 10.000 Lum Lente 0.8ko Laser bideo-proiektagailua, kontrolatik (PCa egongo zen tokitik) proiektorerraino iristeko behar besteko kableatuarekin.

## ARGIZTAPENA

- Argiztapenaren diseinua espazio bakoitzaren ekipamendu teknikora egokituko da. Beraz, xehetasunak antzoki bakoitzeko arduradun teknikoarekin zehaztuko dira.

## BESTELAKOAK

- 1x Ke-makina baxua (SUAKAIk emana).
- 1x Hazer (SUAKAIk emandakoa).
- 1x soinu-teknikaria (laguntzailea) eta 1x argi-teknikaria (laguntzailea).
- Ura (muntaketan eta jardunean).
- 2x kamerino.



# JARRI GUREKIN HARREMANETAN!

## INFORMAZIOA

✉ info@suakai.com

☎ (+34) 649 337 072

## KONTRATAZIOA

✉ contratación@suakai.com

☎ (+34) 696 568 069

## SARE SOZIALAK

fb @suakai

ig @suakaioficial



# ESKERRIK ASKO ZURE DENBORAGATIK!

EZAGUTU IKUSKIZUN GEHIAGO  
GURE WEB ORRIAN

 [www.suakai.com/suakaiproductions/](http://www.suakai.com/suakaiproductions/)

Suakai